

## 120 hegazti espezetik gora, habiak Findegiaren barruan egiten dituztenak

Ehunka hegazti, luma oso desberdinekoak, etorri ohi dira gure findegira, urmaletara, bereziki. Urteko lehen zenbaketak berriz ere utzi du agerian gure inguruko fauna aberatsa, ura gogoko duten hegaztiak, gehienbat, baina aipagarria da, baita ere, azeriak eta bestelako harrapakariak ere noizbehinka inguruko zonetan azaltzen direla.

Lanius Sozietate Ornitologikoko langileek Petronorreko Ingurumeneko Sailaren aginduz iragan urtarrilean egin zuen zenbaketak, lurreko teleskopio eta kamara digitala medio, ondorengo inbentarioa egitea ahalbidetu zuen (parentesien arteko zifra ikusitako animalien zenbakia da): murgilari arrunta (40), zertzeta arrunta (2), koartza hauskara (3), koartzatxo txiki (1), ubarroi handi (5), hegabera (21), andarrio handia (1), kopetazuria (32), sakoneko krabarroka (7), txilinporta arrunta (4), istingor arrunta (1), antxeta mokogorria (13) eta basahatea (10). Gainera, uretakoak ez diren beste hainbat hegazti ere ikusi dira han, besteak beste, beleak, zapelatz arruntak, belatz gorria, txio arrunta eta txepetxa.

Horiek guztiak Findegiaren barrutian harrapatutako hegaztiak, bereziki bigarren urmaelean, umeak edukitzeko han finkatzeko orduan babesa ematen dioten lezkek eta ezpatainak dituenak. Lehen urmaelak ez du ia uretako landarerik eta hegaztiak elikatze erabili ohi dute hau, urperatu egiten direnak bereziki, murgilari arrunta esaterako, igeri egiten dutenen artean basahatea ere badago.

Urtean zehar lau zenbaketa egin ohi dira –lau egunetan—. Bata neguanm urtarrilean, eta beste hiru udan, ekainean, uztailean eta abuztuan. Datu estatistikoek diotenez, zifrak nahiko konstanteak dira. 2008ko zenbaketek 2007ko zifra pixka bat txikiagoa adierazten dute, baina aurtengo lehen neurketa honek aurreko zifretara eramaten gaitu.

Ez-ohiko hegazkien artean 2007an Petronorren instalazioetan jaio zen kopetazuri albinoa aipatu beharra dago.

Aipatu beharra dago, azkenik, duela hamarkada bat findegia ari direla bisitatzen leku horiek IKT-ko (Eusko Jaurlaritzari atxikitako enpresa) langileak, eta ICARUSEkoak (Estudios Medioambientales S.L., eta azkenak aurrekoa osatu du eta bioaniztasun eta iraunkortasun faktoreak bateratu dituzte Petronor barruan eta haren inguruan dagoen Landaretzaren fitoerremediaziorako hainbat baliabiderek.

Muskiz, 2009ko otsailaren 02.